


2011ko azaroaren 17a, Ikasleen nazioarteko eguna


EAEn 2009-2010 ikasturtean 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik lau Euskadiko hezkuntza sisteman matrikulatuta zeuden

Gazteen Euskal Behatokiak aztertutako datuen arabera, 2009-2010 ikasturtean EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %40 Euskadiko hezkuntza sisteman matrikulatuta zeuden.

15 eta 19 urte bitarteko gazteei dagokienez, eskolatzetasa, hau da, matrikulatuta zeudenen ehunekoa beren adineko gazte guztiekiko, %88koa da eta adinak aurrera egin ahala, jaisten da: %41, 20 eta 24 urte bitartekoen artean eta %10, 25 eta 29 urte bitartekoen artean.



Gizonen eta emakumeen eskolatzetasa oso antzekoak dira 19 urte izan arte, baina 23 urtetik aurrera ere, baina 20 eta 22 urte bitartekoen artean eskolatzetasa handiagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino.



Ikasle diren 15 eta 29 urte bitarteko gazte hauek honela banatzen dira ikasketa mailetan: %16 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) matrikulatuta daude, %21,7% Batxilergoan, %7,9 Lanbide Heziketako moduluetan, %3,5 Hasierako Lanbide Prestakuntzako programetan, %10,9 unibertsitatekoak ez diren goi-mailako ikasketetan eta %40 unibertsitateko goi-mailako ikasketetan.

